

Euskalingua 18

Aurkezpena

Irakurle hori,

Euskalingua 18k bost artikulua ditu. Hasierako artikuluan Gamindek ahozko corpusa eta honen deskripzioa eskaintzen dau. Bigarrenean, A. Etxebarria eta beste batzuek egindako lanak, kortesia erlazioetako prosodia du gaitzat. Ondoren, Esparza eta beste batzuek egindako bilketa lanaren barri emoten dau. Aholab ingeniari taldeko Erro eta beste batzuek egindako lanak testu-ahots bihurgailuez dihardu. Azkenik, Aholab ingeniari taldeko Luengo eta beste batzuek egindako artikulua diarizazioaz dihardu, ahots bihurgailuen hobetze prozesuari ekinez.

Iñaki Gamindek *79-93ko Euskaldunen Ahozko Corpusaren Ezaugarrien Deskripzioa* izenburudun artikulua dakartzu, grabazio gordailu kontsulta baliabide itxia barik, ahozko hizkuntzaren ikerkuntzarako tresna baliagarri izan daitekeen corpusa, hain zuzen, 79-93 urteen artean jaiotako euskaldunen ebakerak eta prosodiaren alderdi desbardinak aztertze materiala duena, berba bildumak, testu irakurriak, bat-bateko testuak...

Aintzane Etxebarria, Iñaki Gaminde, Urtza Garay eta Asier Romerok *Prosodiaren garrantzia kortesia erlazioetan* izeneko artikuluan prosodia hartu dabe gaitzat. Prosodia gaitasun gramatikalari, eta gaitasun pragmatikoei lotuta dago eta egileek batzuek eta besteaz dihardue. Komunikazioa arrakastaz gauzatzeko hizkuntzaren eta honen erabileraren nondik norakoak landu ditue, hala nola, azentua, tonua, intonazioa, fonetika, fonologia, sintaxia, etab. Hizkuntzaren irakaskuntzan ere baliagarriak izan daitezke kortesiazko adierazleok.

Iñaki Esparza, Angel Larrea eta Juan Rekaldek *Arratia inguruko kanta partida AK-37 taldearen eskutik* artikulua eskaintzen dabe. 1999an informazio biltzeko hasitako grabaketak aberastuz joan direlarik, besteak beste, kanta bilduma egin dabe, baita kanta horiek grabatu ere. Artikulu honetan, izenburuak dinoen moduan, Arratia inguruan jasotako kanta historikoak, gerretakoak, alaiak, maitasunezkoak, erlijiosoak eta ume kantak dagoz. Aipagarria da orain arte inoiz grabatu bako gerra karlistetako kanta bi artikulua honetan aurkitzea, ondoko biak, hain zuzen, “Karlos Setimo eta Doña Margarita” izeneko kanta eta “Karlistetako general faltsuak” izeneko.

Aholab ingeniari taldeak bi artikulua dakartza *Euskalingua 18ra*. Lehenengoa, Daniel Erro eta beste batzuek idatzia *HMMetan oinarritutako euskararako testu-ahots bihurketa, HTS erabiliz* izeneko da. HMM ahots-sintesi sistemetan oinarritutako testu-ahots bihurgailuen garapenez dihardu; ahosetara, hitz egiteko eretara, emozioetara egokitu daitezkeen sitema malguok, orain euskararako garatu ditu Aholabek

Bestea, Iker Luengo eta beste batzuek idatzia *AhoLab taldearen sarrera Albayzin 2010 hizlarien diarizazio erronkarako* izenburuduna da. Berton audio grabaketen diarizazioa edo hizlarien identifikazioa, txandaketa, segmentazioa, etab. optimizatzeko eta eraginkortasuna hobetzeko egindako lanaren barri emoten dau.

Euskalingua 18ko artikuluek gustuko izango dituzulakoan, agurtzen zaitut.

Aulesti, 2011eko martxoak 21

Maribi Unamuno

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es